

# Muskuiluak afaltzeko

*Birgit Vanderbeke*

AINHOA IRAZUSTABARRENAK *itzulia*

Jatorriko izenburua:  
*Das Muschelessen*

© Rotbuch Verlag, Berlin, 1990

© itzulpen honena, 2012, Ainhoa Irazustabarrena

Zuzenketa: Miren Arratibel

© argitalpen honena, 2012, Pasazaite liburuak

Harrobieta enparantza 12  
20017 Donostia - Gipuzkoa  
[www.pasazaite.com](http://www.pasazaite.com)  
[liburuak@pasazaite.com](mailto:liburuak@pasazaite.com)

Maketazioa: Astidiseinua  
Sailaren diseinua: La Personnalité

ISBN: 978-84-940331-1-7  
Legezko gordailua: SS-1442-2012

Inprimatzailea: Leitzaran grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain-Gipuzkoa





**G**au hartan muskuiluak genituen afaltzeko, baina Ghorri ez zen seinale bat izan, ezta kasualitatea ere. Apur bat ohiz kanpokoak zen, baina argi dago ez zela inolako seinalea izan, gerora batzuetan esan izan dugun moduan, hura seinale txarra izan zen, esan izan dugu batzuetan, baina ziur ez zela hala izan, ezta kasualitatea ere. Hain justu egun hartan muskuiluak genituen afaltzeko, gau hartan, hain zuzen ere, esan izan dugu, baina, bestalde, halakorik ere ez zen izan, ezin da esan, inolaz ere, kasualitatea izan zela, soilik gerora saiatu izan garelako afaltzeko muskuiluak izate hura seinaletzat edo kasualitatetzat hartzen; izan ere, ezohiko muskuilu-afari haren ondotik etorri zena izugarria izan zen, eta ordutik hona gutariko inor ez da gehiago bere onera etorri. Eta, azken finean, beti jaten genituen muskuiluak zerbait berezia zegoenean, eta orduan ere izan zen zerbait berezia, nahiz eta guk uste genuenaren guztiz bestelako zentzu batean gertatu zen. Ondo begiratuta, muskuilu-afaria prestatu genuenean espero genuena ez zen hain berezia, gero egiazki gertatu zenarekin alderatuz gero, bigarren mailako berezitasuna zuen, edonola ere; ostera, egiazki gertatu zenak berezitasun nabarmena izan zuen, berezitasun ikaragarri eta apartekoa, baina ezin da esan, inolaz ere, seinale bat edo kasualitatea izan zela gau hartan afaltzeko muskuiluak izatea, aitaren jaki gogokoena. Ez zen inolaz ere gure jakirik gogokoena, bakarrik anaiak jaten zituen gustura, amak eta nik ez genituen asko atsegin. Ez ditut asko atsegin, esaten zuen

amak, bainuontziaren gainean makurtuta muskuiluak garbitzen zituen bitartean, sukaldeko aizto txikia eta zurda gogorreko eskuila gorria txandaka erabiliz, bi eskuak gorri-gorri zituela, muskuiluak garbitzeko ur zurrusta hotzaren azpian izaten zituelako, eta ondoren muskuiluak sakonki harraskatu, marruskatu, eskuilatu eta uretan behin eta berriro garbitu behar izaten zituelako; izan ere, aitarentzat ez zegoen gauza higuinarrigorik, muskuiluak jaten ari zela hondarra hozkatzea eta hark hortzetan kraska egitea baino, horrek izugarri gogaitzen zuen. Egia esateko, nik ez ditut asko atsegin, esan zuen amak arratsalde hartan ere, esku izoztuei hats ematen ziela, baina, noski, orduan ere bazen zerbait berezia; horregatik, goizean lau kilo muskuilu erosi zituen, pentsatuta aita poztu egingo zela, iluntzean bere laneko bidaiatik etxera itzultzen zenean. Izan ere, gehienetan aita aspertuta itzultzen zen laneko bidaietan izaten zen plantxan egindako edo labean erretako haragi gogorrarekin, eta orduan amak prestatutako itxurazko zerbait nahi izaten zuen, etxean egina, eta biltzarretarako hotel horietan izaten ez zena. Aita nazkatuta itzultzen zen biltzarretarako hotel horietatik, erosoak dira, baina baita desatseginak ere, esaten zuen. Aitari ez zitzaion batere gustatzen laneko bidaietara joatea, nahiago izaten zuen familiarekin geratu, eta haren itzulera beti izaten zen gertaera berezia. Usadioz, patata egosi azaldunak gaztanberarekin izaten genituen halakoetan, linazi-olioarekin maneatuta, batzuetan ilar-zopa ere izaten zen, eta aitak nostalgia sentitzen zuen, gaztaroan halakoak jaten zituelako, eta ez plantxan egindako edo labean erretako haragi gogorra. Horregatik, askotan eskatzen zuen halakoak prestatzeko. Baina muskuiluak

ez zituen inoiz eskatzen, muskuiluak biek elkarrekin prestatzen zituztelako beti, aitak eta amak. Horregatik, egun hartan jada salbuespena izan zen amak bakarrik garbitzea muskuiluak, bi eskuak gorri-gorri zituela, ur zurrusta hotzaren azpian izateagatik. Aldiz, erabat normala izan zen esatea, nik ez ditut asko atsegin, beti esaten baitzuen gauza bera gurasoak bainugelana desgertzen zirenean muskuiluak garbitzeko. Txandakatu egiten ziren bainuontziaren gainean makurtuta egoteko, bizkarra ez gogortze aldera, eta ordubetez entzuten ziren komunetik aitaren barre-algarak eta amaren intziriak. Aspaldi batean *Anaiok*, *eguzkirantz*, *askatasunerantz* abesten zuten batzuetan, beste aldean ikasitako abesti bat, beti abestu behar izaten zutena, edo *Internazionala* eta horiek guztiak, amak bere soprano ahotsarekin eta aitak bere baritono ahotsarekin; geroago, ordea, enpresaren etxebizitzetara joan ginenean, kantatzeari utzi zioten. Handik ateratzen zirenean, biek eskuak gorrituta zituztela, apur bat lotsatuta egoten ziren, han barruan izandako txantxengatik, baina sukaldean txorakeriak egiten jarraitzen zuten, eta denborarekin jakin genuen nire osabak, zeinaren etxera joan baitziren haien eztei-bidaia geroratuan, muskuiluak prestatu zizkiela afaltzeko, eta haiek ez zituztela ezagutzen, garai hartan ez zegoelako muskuilurik Ekialdean. Hasieran pixka bat arrotzak egin bazitzaizkien ere, gero nolabaiteko gordinkeria aurkitu zuten haietan, halako arinkeria bat, eta beti ibiltzen ziren tontokeriatan muskuiluak zeudenean. Atzeratu behar izan zuten eztei-bidaia hura zela eta, gurean normala zen aldarte onez egotea afaltzeko muskuiluak zeudenean. Hau da, normala izan zen egun hura arte, zeina denok baikenekien alde zurretik egun be-

rezia, historikoa, nolabait esateko, izango zela familiaren kondairan; izan ere, laneko bidaia hark azken urratsa izan behar zuen aitarentzat mailaz igotzeko bidean, eta inork ez zuen zalantzarik aitak arrakasta izango zuela. Asteak eman genituen asteburuetan txintik ere atera gabe, aitak hitzaldia idatzi eta kolore askotako gardenkiak eskuz margotzen zituen bitartean. Guk beti esaten genion, zein politikak geratu diren gardenki horiek, aitak galdetzen zigun, eta, zer iruditzen zaizkizue, eta guk behin eta berriro esaten genion zein politikak iruditzen zitzaizkigun. Gainera, denok genekien aitak hitzaldi bikainak ematen zituela eta berebiziko arrakasta izaten zuela beti; izan ere, hitzaldiak eman ahala, dohain didaktiko izugarriak bereganatu zituen eta oso harro zegoen trebetasun horietaz. Publikoaren aurrean atsegina eta xarmagarri agertzen zen, eta horri gehitu behar zaio natur zientzien esparru zail eta korapilatsuenetako baitan zeukan gaitasuna, baina publikoaren aurrean agertzen zuen xarma horri esker bere gaitasun zientifikoak ez zirudien hain zorrotza, eta jendea liluratuta ateratzen zen beti hitzaldiekin eta aitarekin, oro har. Gau hartan etxean sartzean aitak igoera ia-ia eskuan izango zuela –ezer ofizialik ez, noski, baina goitik egina izango zioten keinuren bat–, horixe izan zen arrazoia, amak, sukaldeko aizto txikia eta zurda gogorreko eskuila txandaka hartuta, esku gorrituekin, lau kilo muskuilu, alez ale, ur izoztuaren azpian eduki eta harraskatu, marruskatu eta behin eta berriro garbitzeko, aitak ezin zuelako jasan hondarrak hortzetan kraska egitea. Bitartean, behin eta berriro esaten zuen berak ez zituela muskuiluak asko atsegin, eta bizkarra gogortuta zuelako kexatzen zen, baina ez zigun utzi laguntzen, utzi niri, hartara, orain-



dik ere hondarra aurkitzen badu, ez da zuen errua izan-  
go, esan zuen amak. Patatak mozteko esan zigun, ordea;  
izan ere, muskuiluei laguntzeko beti egin behar ziren  
patata frijituak. Nik ez ditut asko atsegin, amari oso  
ondo ateratzen bazaizkio ere. Anaiari izugarri gustatzen  
zaizkio patata frijituak, eta beti esaten du amarenak  
paregabeak direla. Behin, gurean ohikoa ez zen zerbait  
ere egin zuen: lagun guztiak gonbidatu zituen etxera,  
ez ziotelako sinesten eta barre egiten ziotelako. Amak  
patata frijituak egin zituen guztientzat, eta haiek guztiak  
jan zituzten liluratuta eta konbentzituta, eta anaia oso  
harro zegoen amaz. Harrezkero, batzuetan laguntzen  
genion, eta egun hartan ere patatak zuritu eta txotxetan  
ebaki genituen, eta gero eta urduriago geunden. Gero-  
ra esan izan dugu harrezkero hasi ginela urduritzen,  
harrezkero hasi ginela zerbait sumatzen, gero gertatuko  
zenaz; baina baliteke ere urduri egotea soilik zain geun-  
delako; izan ere, beti urduritzen ginen aitaren zain ego-  
ten ginenean, beti nabaritzen genuen nolabaiteko ten-  
tsioa. Beharbada, gerora kontua puztu egin dugu eta ez  
genuen ezer sumatu. Anaiak, adibidez, ez zuen ezer  
nabaritu; aldiz, ama eta ni kezkatuta geunden; edono-  
la ere, gu gara kezkatienak; anaia, berriz, beste erreme-  
diorik ez duenean hasten da kezkatzen, ordura arte  
oharkabean joan ahal zaizkio zantzu eta seinale kezka-  
garri guztiak. Kontua da nik zehazki gogora dezakeda-  
la noiz aldatu zen nire aldartea eta hasi nintzen urdu-  
ritzen, une horretantxe erlojuari begiratu bainion, eta  
seiak eta hiru ziren. Seiak eta hiru zirenean, nire aldar-  
tea aldatu egin zen eta kezka, egonezina sentitzen hasi  
nintzen. Muskuiluak justu sukaldeko erlojuaren azpian  
zeuden, eta zarata hura entzun nuenean, aurrena mus-

kuiluei begiratu nien, eta ondoren, berehala, sukaldeko erlojuari. Zarata muskuiluetatik zetorren, zeinak jada garbituta eta eskuilatuta baitzeuden muskuiluak egosteko beti erabiltzen genuen eltze esmaltatu beltz handi hartan, hura baitzen lau kilo muskuilu sartzeko moduko bakarra. Amak kontatu zigunez, eltze hura berarekin eramane zuten Ekialdetik ihes egin zuenean, pixoihalak garbitzeko ezinbestekoa zuelako; izan ere, eskuz garbitu behar izaten zituen, edo, hobeto esanda, koilara handi batez lagunduta. Nik galdetu nuen praktikoa ote zen halako eltze handi bat eramatea ihesaldi batean, burugabea iruditzen baitzitzaidan txarrantxa-hesietatik barrera ihes egitea hain eltze handia hartuta, baina amak esan zidan, ihesaldi horren irudipen okerra duzu, finean guk ez genuen presaka alde egin, denbora luzez prestatutako zerbait izan zen. Atsegin genuen kontatzea nola moldatu ziren gauzak Mendebaldeko Berlinera pasatzeko, baita bananen istorioa ere, banana haiengatik mugan atxilotua izateko zorian egon baitzen aita Berlinera egin zuen lehen eta azken bidaian. Egia esateko, baldar samarra zela irudituko zitzaie, berak ere aitortzen zuten ez zuela halako kontuetarako balio; hala ere, beste aldera joaten ausartu zen aldi bakarrean, adoretu sentitu zen eta Mendebaldetik bi kilo banana eramane saiatu zen, baina berehala harrapatu zuten, metrotik jaitsarazi, galdeketa egin eta guzti, nahiz eta azkenean aske utzi zuten. Ez dakit benetan norbait atxilotu ahal zuten banana kilo pare batengatik, populazioaren erdia beste aldera ihes egin nahian zebilenean, ezin dut sinetsi, baina aitak dio hori erresistentzia zela, erresistentzia politikoa. Edonola ere, berak ez zuten bidaia gehiagorik egin, eta eltze esmaltatu handia amak pasatu zuen, eta

lagun baten etxera eraman. Ni ere beti eramaten ninduen berarekin Berlinera joaten zenean, bere umearekin zihoan ama batek ez zuelako hainbesteko susmorik pizten, eta gainera egiazki eraman behar izaten ninduen *Charité* ospitalera, aldakan arazo bat nuelako. Edozein geltokitan metrotik jaitsi eta gauzak ematen zizkion bere lagunari, halaxe kontatzen zuen beti, harakoan neguan bezala estalita joaten ginen, baina itzuli ia arroparik gabe itzultzen ginen, eta arriskutsua zen, baina zuen aitak ez du balio gauza horietarako, esaten zuen amak bananen kontua aipatzen genuenean. Edozein modutan ere, zarata hura eltzetik zetorren, eta harantz begiratzean erlojua ikusi nuen aldi berean, eta seiak eta hiru ziren. Eta hain justu une hartan aldatu zen nire aldartea. Eltzeari begira geratu nintzen, handik ateratzen baitzen zarata hura. Nik banekien muskuiluak bizirik zeudela oraindik, baina ez nekien eltze barruan zarata egiten zutenik, inoiz ez bainintzen bertan egon gurasoek muskuiluak egosten jartzen zituztenean. Hasieran pentsatu nuen, beste zerbait izango da, baina zarata eltzetik zetorren ezbairik gabe, zarata zehatz eta bitxiak ziren, egonezina eragin zidatenak, nahiz eta neurri batean hori izan zen denok geundelako aztoratuta eta urduri, eta orduan ez genuen zarata hura besterik behar. Ezin nituen begiak eltzetik kendu eta patatak txotxetan ebakitzeari utzi nion, zarata hark zoratu egiten ninduelako, gainera besoetako ileak tente jarri zitzaizkidan, beti gertatzen zait hotzikarak ditudanean, eta zoritxarrez berehala ikusten da, besoetako ileak oso ilunak baitituz. Horregatik, ama berehala ohartu zen nire egonezinaz, baina, noski, ez zekien eltzeko muskuiluek egiten zuten zarata zela egonezin hura eragiten zidana, berak ezaguna bai-

tzuen zarata hura. Galdetu nuen, ez al duzue ezer aditzen, entzun ezazue. Muskuiluak dira, esan zuen amak, eta gogoan dut erantzun nuela, ez al da beldurgarria; izan ere, banekien oraindik bizirik zeudela, baina inoiz ez nuen imajinatu haien oskolek halako karraska-hotsa atera zezaketenik, nik bakarrik imajinatzen nuen egosten zirela, jaten zirela eta kito. Anaiak ez zuen beldurra emateko ezer aurkitu, eta amak esan zuen irekitzen ari zirela eta horregatik mugitzen zela muskuilu-pila osoa. Niri izugarria iruditu zitzaidan muskuilu-pila osoa mugitzea irekitzen ari zirelako, baina, hala ere, ez nuen haiekiko inolako errukirik sentitzen, azken finean jan egiten ditut, asko atsegin ez baditut ere, eta argi dago lehenbizi bizirik egoten direla eta jaten ditudanean ja ez daudela bizirik. Ostrak ere jaten ditut, eta badakit jaten ari naizenean oraindik ere bizirik daudela, baina ostrek ez dute halako zaratarik egiten. Egia esateko, muskuiluen aurkako nolabaiteko amorrua piztu zitzaidan, irekitzen ari zirelako, beren pilan geldirik egon beharrean, eta esan nuen, ez al zaizue zantarra iruditzen muskuiluak irekitzea eta zarata hori egitea, zantarra eta lotsagabea, baina aldi berean pentsatu nuen, hain lotsagabea iruditzen bazait da azkenean akabatu egingo ditugulako, eta nahiago izango nukeen lehenago bizirik egoten direla pentsatu behar ez izatea. Hain beltzak eta itxiak daudenean, ez dago zertan irudikatu bizirik daudela, gauzak balira bezala begira dakieke, eta orduan ez da ezer gertatzen ur irakinetara botatzeagatik, soilik da izugarria bizirik daudela pentsatuz gero. Orain bertan jarriko bagenitu egosten, denbora guztian pentsatuko nuke haiek hiltzen ari garela, eta hori ez diodala ezer txarrik ikusten animaliak hiltzeari, jateko badira, baina

nahiago nuke hildakoekin zerikusirik ez izan, hori beste batzuek egin dezatela, ez dut pentsatu ere egin nahi horretan. Ikaragarria iruditzen bazitzaidan ere, hurbildu egin nintzen, ez nuelako koldarra izan nahi, eta nazkagarria iruditu zitzaidan ikustea nola zeuden han eta nola batzuk poliki, oso poliki irekitzen ziren, eta, noski, orduan pila osoa mugitzen zen karraska-hots hura atereaz. Sinestezina da, esan nuen, ze nazkagarriak, izaki hauek, arnastuka-edo daude, baina itsasoko ura beharrezan airea lortzen dute, airea ezin badute arnastu ere, eta berehala ur irakinetara joango dira eta orduan irekiko dira, baina jada hilik egongo dira. Eta bat-batean pentsatu nuen, beharbada nazkagarria iruditzen zait soilik badakidalako laster hil behar ditugula, bestela agian ez zen hain higuigarria izango. Eta gogoratu nuen hondartzan muskuilu erdi irekiak ikusi izan ditudala eta ez didatela ezer berezirik sentiarazi, eta muskuilu erdi ireki horietako batzuk hartu eta itsasora jaurti izan ditudala, egia esateko, ez errukiagatik, ez eta ikusitako guztiak ere, batzuk besterik ez, baina, edonola ere, ez zitzaizkidan batere beldurgarriak eta higuigarriak iruditzen, aurrean nituenak ez bezala. Amak eta anaiak ez entzuna eginez amaitu zuten patatak txotxetan ebakitzen, eta azkenean esan nuen, demagun badakigula norbait ordubete barru hilko dela, ez al zaizue iruditzen nazka emango lukeela, ni ziur nengoen horrelako norbaitek nazka emango lidakeela hori jakite hutsagatik, eta beste norbaitek bere eskuez erailtzeko zorian balego, guk muskuiluekin egin behar genuen bezala, are gehiago. Hausnarketa hark heriotzan pentsatzera eramanez ninduen, beste biek ez entzunarena egiten zuten, hau erailketa masibo bat da, esan nuen, denak batera, aldi berean, ur

irakinarekin. Muskuilu haiek aztoratu egiten ninduten, muskuilu haiek giro goibela ekarri zuten sukaldera, ez dago hau jasaterik, esan nuen; amak, ordea, zorrozki erantzun zidan, a ze burutazioak, amak batzuetan oso ideia xelebreak izaten baditu ere. Aita laneko bidaian izaten zenean, hirurok istoriorik xelebreenak kontatzen genizkion elkarri, eta inor ez zen horregatik harritzen, baina aita itzuli baino lehen gure xelebrekeriak desager- tu egiten ziren, batez ere amarenak. Aitarentzat, xele- brekeriak umekeria ziren; aldiz, objektiboa eta arrazoiz- koa zen ororen aldekoa izaten zen, eta, logikoa denez, amak begirunea zion aitaren izaera objektibo eta arra- zoizkoari, eta, hura iristear zela, aldatu egiten zen eta hari egokitzen zitzaion. Eta amak esan zuenean, a ze burutazioak, berehala jakin nuen jada aldatzen hasia zela, eta muskuiluekiko sentitzen nuen nazka amareki- ko sentitzen hasi nintzen orduan, eta esan nuen, ezin da gogoeta egin ala, baina amak esan zuen, edozeri esa- ten diozu zuk gogoeta egitea, hobe zenuke probetxuga- rriagoa den zerbaitetan pentsatu, horrelako kontu bel- durgarrietan baino. Gure familian ideia beldurgarriak eta ameskeriak ideia-xahubidetzat hartzen ziren, batez ere aita etxean zenean, eta une hartan ez zegoen etxean oraindik, baina une batetik bestera irits zitekeen. Ezin da ezer egin berriz ere itxi daitezen, galdetu nuen. Nik ez dut uste xahutzeaz hitz egin daitekeenik pentsatze- ari buruz ari bagara; izan ere, pentsamenduak dira berez xahubiderik ederrena. Beraz, kontua sakonki aztertze- ari ekin nion eta egiaztatu nuen muskuiluak itxi egiten direla tartean aiztoa sartuz gero, une horretan erreffe- xuren bat sortzen da eta muskuiluen oskolak bat-batean ixten dira. Begira ezazue, esan nuen, amak muskuiluak

garbitzeko erabili zuen sukaldeko aizto txikia banan-banan sartzen nien bitartean, karraska-hotsak ere ez ninduen gogaitzen, eta muskuiluak ixten zihoazen. Hala, muskuilu guztiak itxi ziren, eta nolabait lasaitu egin ninduen hura lortu izanak, eta ez nintzen asaldatu anaiak esan zuenean, erotuta zaude.

Patatak ebakita zeuden, eta amak esan zuen, tira, orain etorri beharko luke. Jada atzeratuta genbiltzan afariarekin; izan ere, gurean seietan afaltzen zen, aita bostak eta erdietan iristen baitzen bulegotik. Aurrena egunkaria irakurri eta garagardo bat edaten zuen lasai-lasai, amak afaria prestatzen amaitzen zuen bitartean, eta, esan dudan moduan, seietan puntuan afaltzen genuen, aita laneko bidaian zenean izan ezik; orduan ordutegi osoa hankaz gora jartzen genuen, eta dena izaten zen ezberdin. Kakaoa eta gazta-ogitartekoak izaten ziren, nahi genuenean jaten genuen, batzuetan zutik sukaldean, eta eskuekin. Ez dut uste inoiz aizto eta sardexkarekin jan genuenik, aita laneko bidaian zegoenean. Basati batzuen moduan jokatu dugu zu kanpoan egon zaren bitartean, esaten zuen amak, aitak galdetzen zuenean, tira, zer egin duzue ni gabe. Ederra da noizik eta behin basatien moduan jokatzea, esaten zuen amak nostalgia apur batez, berak guk bezainbeste atsegin baitzuen, eta gainera lan gutxiago izaten zuen hala. Berarekin bakarrik geundenean ez ginen ia inoiz liskarrean aritzen, eta niri ere gustatzen zitzaidan basatien moduan jokatzea, baina aitak ez zuen ezertxo ere jakin nahi horretaz, eta orduan ama hari egokitzen zitzaion. Zazpiak inguru zirenez, jada aldatuta zegoen. Denok espero genuen etxean sartu eta esango zuela, tira, zer itxura dut, igoera ia-ia eskuan